

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramán ahal izateko, hurrengo baliabideak beharko genituzke: supermerkatu batean jartzeko postu txiki bat eta gure proiektua bultzatzeko baliabide komunikatiboak, hala nola: sare sozialak, posterrak eta iragarki bat.

Hasteko, postuari dagokionez, denetariko materialak beharko genituzke. Alde batetik, postu informatibo bat denez, gure proiektua deskribatzen dituen buletinak eta informazio orriak eskainiko genituen. Beste aldetik, begi-bistarako erakargarria den postu bat lagungarri izan daiteke. Horretarako, lehen aipaturiko posterrak diseinatuko ditugu.

Horrez gain, poster horiek ez ziren posturako erabiliko soilik. Gure proiektua jendeak ezagutu dezan, poster horiek herri osoan zehar kokatuko ditugu ahalik eta hornitzaile gehien eduki ditzagun.

Beste aldetik, gaur egun sare sozialen eragin ezagutzen dugunez, komenigarria iruditzen zaigu hauetako batzuetan kontu bat sortzea eta gure proiektuari buruz informazioa eskaintzea. Honen bidez, beste herrietako jendeari iritsiko zitzaien gure zerbitzua.

Azkenik, adinekoentzako errazagoa izan dadin, iragarki bat prestatuko dugu. Beraz, bideo bat filmatuko dugu telebistan edota beste komunikabide batzuetan erreproduzituia izateko.